

HITZALDIAK

Euskal erreferentziak eta kontakizun espainiarra

Habamostaldi Kulturala

Antolatzailea: Nafartarrak Taldea.

Laguntzaileak: Usurbilgo Udala eta Nabarralde Fundazioa.

Sarrera: doan.

AZAROAK 17, ASTELEHENA

Hitzaldia: “Euskalduntze berantiarra eta beste ipuin batzuk”

19:00 Potxoenean · Hizlaria: Juan Martin Elexpuru.

Hitzaldian Euskalduntze berantiarren gaia jorratuko da, baina ez da gai bakarria izango. J.M. Elexpuren azken bi liburuak aurkeztuko dira: *Euskarazko izenak erromatar garaiko aldare eta hilarrietan* (2024), eta *Euskararen mende magikoak* (V-IX K.o.) (2025). Gure hizkuntzaren antzinatea ezagutzeko funtsezko obrak.

AZAROAK 18, ASTEARTEA

Hitzaldia: “Ipuscua 1000 urte, Belmolte de Usurbil 650 urte”

19:00 Potxoenean · Hizlariak: Patxi Olabarria eta Iñaki Idigoras. Urteurrenetan kontatzen ez zaigun hori azaleratuko digu 'Gipuzkoako armarria, gure historiaren ispilu' liburuaren egilea den Patxi Olabarria Irizar antzuolarrak eta Iñaki Idigorasen gogoetak izango dira.

AZAROAK 21, OSTIRALA

Asisko Urmeneta “Sorgina banaiz” dokumentala eta solasaldia

19:00 Sutegiko auditoriumean

Gure mendietan dantzan ari diren suak zeinek piztu zituen? Eta nola-koa da sorginaren irudia herrietako ospakizunetan? Sinetsi ote dugu inisidoreen kontakizuna?

Ala bihotzak diotsu arbasoak zuzen zirela azken arnasa arte ziotelarik ez zekitela zer ziren akelarreak?

AZAROAK 24, ASTELEHENA

Xosé Estévez “Orígenes del nacionalismo en Euskal Herria (1893-1923)” liburu aurkezpena

18:30 Udal liburutegian

Antolatzailea: Nafartarrak eta Udal liburutegia.

Aurkezlea: Breogán Estévez Goñi. Hizkuntza: elebiz.

Egilea gure artean izango da.

29

Larunbata

12:00-14:00

Mikel Laboa plazatik irteera

Kantu-jira kalez kale

Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.

Nori zuzendua: Herritar orok parte har dezake. Har ezazue liburuxka eta zatozte elkarrekin kantatzera.

29

Larunbata

14:00

Aialde Berri sagardotegian

Kantu bazkaria Santuenean

Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkarte.

Menua: 33€ · Txartelak erosteko azken eguna: Azaroak 15

Txartelak salgai: Esnaola janari-dendan, Artzabal Jatetxean eta santueneake@gmail.com / 621095644.

Haurren menuari buruzko informazioa: santueneake@gmail.com / 621095644.

XXIV. ERLE EGUNA

Antolatzailea: Erle Lagunak · Laguntzailea: Usurbilgo Udala

AZAROAK 29, LARUNBATA

“Argizaiola” liburu aurkezpena

17:30 Salbatore Parrokian

Liburuaren egileak: Fernando Iturralde (historialaria), Joseba Urretavizcaya (argazkilaria) eta Xabier Kerejeta (etnografoa).

Euskal kulturaren lehen aldiz liburu bakar batean ehunka argizaiolak, oihalek, fuesek eta aizkorak osatutako erakusketa bat biltzen da, heriotzari lotutako milaka urteko gure kulturaren hileta errituekin, ohituekin eta tradizioekin zuzenean lotuta dauden piezak.

AZAROAK 30, IGANDEA

XXIV. Erle Eguna

09:00-10:00 Ezti eta gozogintza bilketa.

11:00-14:00

- Azoka. Postuetako salmenta

- Erakusketak Sutegin: Erleak, eztiaren ontziratze prozesua...Marrazki Lehiaketako lanak, bideoak.

11:00 Ezti dastaketa frontoian/Eztia eta txokolatearekin egindako goxoak/Argizaiola/ Balerdi-pekoeen eskutik kadelak egiteko aukera.

13:30 Euskal Herriko XXIV. Ezti Lehiaketako sari-banaketa: - Ezti Lehiaketako irabazleak.

- Gozogintzako irabazleak.

- Marrazki Lehiaketako irabazleak.

Azoka: Ezti eta erletik datozen hainbat produktuen salmenta.

IKASTAROA

SANTUENEA MARTXAN!

Antolatzailea: Santuenea Kultur Elkarte

Informazioa eta izen ematea: 621 09 56 44 · E-maila: santueneake@gmail.com

SENDABELAR KOADERNOA | Urriak 24 eta Azaroak 7

Ordua: 17:00-19:30 · Hizlaria: Leire Lazkano · Prezioa: bazkideak 30€, ez bazkideak 35€

Gure inguruan agertzen diren sendabellarak behatu eta ezagutuko ditugu.

BISITA GIDATUAK

• **Azaroak 8 Gerraren Memoria Ibilbidea** (Ondarearen Europako Jardunaldiaren programazioaren barruan). 11:00 Mikel Laboa Plazan.

• **Azaroak 9 Museo Irekia: Zumeta Arte Estudioa** 11:00 Sutegi Udal Liburutegian.

• **Azaroak 22 Salbatore Elizaren ondarea: organo erakustaldia** Gaztelaraz 11:00 Salbatore Elizan.

• **Azaroak 26 Zero Zabor** 10:00 Udaletxean.

• **Azaroak 28 Zaintzaren Usurbil** 10:00 Udaletxean.

Sarrerak <https://650usurbilbizi.eus/agenda/>

Telefona: 747 485140 turismoa@650usurbilbizi.eus



KZ-GUNEKO IKASTAROAK



AURREZ AURREKOAK

GOOGLE DRIVE

Bildu eta partekatu zure artxiboak (4 ordu)

Azaroak 03-04 18:00-20:00

SORTU BIDEOAK

zure gustuko irudiekin (6 ordu)

Azaroak 05-07 16:00-18:00

BIZITZA AKTIBOA IZAN

Google fit eta Wikilocekin (2 ordu)

Azaroak 10 16:00-18:00

ZIBERSEGURTASUNA ETA PRIBATUTASUNA SAREAN (8 ordu)

Azaroak 11-14 16:00-18:00

LIBREOFFICE WRITER

Zure testu dokumentuak sortu (8 ordu)

Azaroak 17-20 18:00-20:00

MEKANOGRAFIA

ikasi hutsetik (10 ordu)

Azaroak 24-28 16:00-18:00

Honez gain, urruneko ikastaro eta bideokonferentzia eskaintza zabalda.

Azaroan Kzguna: arratsalde 16:00-20:00
Kale Nagusia 37 · 20170 Usurbil · Tel.: 943 02 36 84
tutor.usurbil@kzguna.net · www.kzguna.net

UDAL LIBURUTEGIA



Goizez, 10:00-13:00

Astegunetan,
10:00-13:00 eta 16:00-19:30

Itxita

Goizez

3	4	5	6	7	●	●
10	11	12	13	14	●	●
17	18	19	20	21	●	●
24	25	26	27	28	●	●



Usurbilgo Udala

Kultura, Euskara
eta Gazteria Saila
Tel. 943 371 999
kultura@usurbil.eus
www.usurbil.eus

usurbilkultura.eus

Herritarren tresna
Usurbilgo kultura zabaltzeko



USURBIL KULTURA 2025eko azaroa

	Ostirala 19:00 Herrian	GAU BELTZA: HEZUR LAPUR BADATOR!!	urriak 31
	Larunbata 11:00 Frontoian	XXIX. ARTISAU AZOKA	1
	Larunbata 12:00 Sutegin	BERTSO DERBIA	1
	Larunbata 12:45 eta 17:30 Kalezarren	UDAZKENEKO TRIKITI FESTA	1
	Igandea 17:00 Sutegin	HAURRENTZAKO FILMA: KLARA ETA HAZI MAGIKOEN MISTERIOA	2
	Asteazkena 17:30 Potxoenean	TREBA: GURE EMOZIOAK KUDEATZEN, SEME-ALABEN BIDELAGUN IZATEKO	5
	Osteguna 17:00 Pelaioenean	HILEROKOA PUBERTAROAN	6
	Osteguna 19:00 Aginagako Eliza Zaharrear	USURBILGO SAGARDOEN DASTAKETA	6
	Ostirala 17:30 eta 19:00 Sutegin	GO!AZEN! TELESAILAREN ESTREINALDIA	7
	Ostirala 19:00 Udal liburutegian	KONPASETAN: BIDAIA INTIMO BAT EMAKUMEEN HISTORIAN ZEHAR	7
	Igandea 18:00 Sutegin	HELDUENTZAKO ZINEA: “KARMELE”	9
	Asteazkena 18:00 Potxoenean	HITZALDI-SOLASALDIA IKERKETA SISTEMEN FUNTZIONAMENDUA	12
	Asteazkena 18:00 Udal liburutegian	IPUIN KONTAKETA SAIOA MIRIAM MENDOZAREKIN	12
	Larunbata 09:00 Bordatxoko biribilgunean	MUTRIKUKO OLATU PLANTARA TXANGO	15
	Igandea 18:00 Sutegin	“OLVIDO FLORES” IKUSKIZUNA	16
	Astelehena 19:00 Potxoenean	HITZALDIA: EUSKALDUNTZE BERANTIAARRA ETA BESTE IPUIN BATZUK	17
	Asteartea 19:00 Potxoenean	HITZALDIA: “IPUSCUA 1000 URTE, BELMONTE DE USURBIL 650 URTE”	18
	Asteazkena 18:00 Udal liburutegian	IPUIN KONTAKETA: IXABEL AGIRRESAROB	19
	Osteguna 17:30 Pelaioenean	FAMILIA EREDU BERRIAK ETA LEGEDI ZAHARRA, NOLA UZTARTZEN DA HAU?	20
	Osteguna 18:30 Sutegin	HITZALDIA: 50 URTE FRANCO GABE, 50 URTE DEMOKRAZIAN? JOSU TXUEKA	20
	Ostirala 19:00 Sutegin	HITZALDIA: ASISKO URMENTAREN DOKUMENTALA “SORGINA BANAIZ”	21
	Larunbata 11:30 Udal liburutegian	IDAZKETA TAILERRA: ANA MERINO	22
	Astelehena 18:30 Udal liburutegian	HITZALDIA: “ORIGENES DEL NACIONALISMO EN EUSKAL HERRIA” LIBURU AURKEZPEN	24
	Asteazkena 18:00 Udal liburutegian	PELO AÑORGAREN IPUIN KONTAKETA	26
	Osteguna 18:00 Kalejira 19:00 Sutegin	SANTA ZEILIREN OMENEZKO KALEJIRA ETA KONTZERTUA	27
	Larunbata 11:30 Frontoian	HURBILAGOREN UDAZKENEKO AZOKA	29
	Larunbata 12:00 Mikel Laboa plazan	KANTU JIRA	29
	Larunbata 14:00 Santuenean	KANTU BAZKARIA SANTUENEAN	29
	Larunbata 17:00 Oiardo Kiroldegian	PORROTX, MARIMOTOTS, PUPU ETA LORE: OSTIRALA IRITSI DA! EMANALDIA	29
	Larunbata 17:30 Esalbatoe lizan	“ARGIZAIOLA” LIBURU AURKEZPEN	29
	Larunbata 22:00 Eliza Zaharrear	EUSKARAREN GALA	29
	Igandea 09:00etatik aurrera	ERLE EGUNA	30
	Igandea 18:00 Sutegin	HELDUENTZAKO ZINEA: “GAUA”	30

2025eko AZAROA

USURBIL Kultura



AZAROAK 29

Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore
ZERUA LAPURTU DUTE

EKINTZAK

31urria

Ostirala 19:00 Herrian zehar

Gau Beltza: Hezur lapur badator!!!

19:00 Herrian zehar eta bukaera Dema Planzan.
Antolatzaileak: Herriko eragile ezberdinak (Udarregi, gurasoak, Noaua! K.E., Orbeldi dantza taldea, Zirimara, Gaztelekua...)
Nori zuzendua: parte hartu nahi duen guztiei
Mozorrotuta etorri behar da.
Tortilla, sandwichak eta gaztaina erreak izango dira.
Hezur Lapur izaki misteriotsu bat da eta Gau Beltza hurbiltzen denean bere ezkutuko zulotik irten eta Usurbilera gerturatzen da, itxura beldurgarria du eta inguruan ikusten duen argia zurruputzen du. Etxebizitzetako argiak lapurtzen hasi zen eta kale eta etxeetako argiak bereganatzeaz gain, herritarren barruko argia, itxaropena, ametsak eta pozak lapurtzen saiatzen da.
Baina guk, Ilargiren laguntza izango dugu eta kantu jolasean beldurrak uxatu eta argia berreskuratzen saiatuko gara. "AGUR HEZUR LAPUR, AGUR BELDUR"
Egitaraia:
19:00 Gau Beltza festaren hasiera erronken guneean.
19:30 Erronkak (maila bakoitzeko gurasoen laguntza beharko da)
HH: Artzabalen.
LH 1-2 Udarregiko zezen plazan.
LH 3-4 Erreka txikiko parkean.
LH 5-6 Aranerrekan.
20:30 Kalejira Artzabaldik Dema plazara Ostolaza eta Larrañagarekin.
Ondoren, beldurrak erre eta Dantza saioa trikitilariekin



1 Larunbata 11:00 Frontoian eta Askatasuna plazan

XXIX. Artisau azoka

Antolatzailea: Aitzaga Elkarte.
Aurtengoa XXIX. Artisau Azoka izango da. Frontoian hogeita hamar postu inguru izango dira: bitxigintza, kosmetika, egur-lanketa, zeramika, otarregintza, metalgintza... Baserri-giroko azoka ere egingo da, eta taloa jateko aukera izango da.

1 Larunbata 12:00 Sutegiko auditoriumean

XXIV. Bertso Derbia

Antolatzailea: Real Sociedad Fundazioa.
Laguntzaileak: Athletic Fundazioa, Usurbil Futbol taldea eta Usurbilgo Udala.
Gai-jartzailea: Karlos Aizpurua.
Bertsolariak: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jone Uriá, Aitor Etxebarriazarraga eta Jon Maia
Sarrerak: agortuta.
Erreala eta Athletic gizonetzkoen futbol taldeek derbia jokatu dute azaroaren 1ean Anoeta estadioan. Derbia jokatzaren duten aldiro bertso derbia antolatzen dute Erreala Fundazioak eta Athletic Fundazioak lurraldeko herri ezberdinetan, XXIV edizioa Usurbilen izango da Usurbil Futbol Taldearen 50 urteurrenaren harira.



1 Larunbata 12:45 eta 17:30 Kalexarko plazan

Udazkeneko Dantza eta Trikiti topafesta!

Antolatzailea: Belmonte auzo elkarte.
Laguntzaileak: Orbeldi Dantza Taldea, Usurbilgo Udala.
10:00 Dantza taldeei harrera Potxoenean.
11:00 Argazki Ofiziala eta kalejiraren hasiera Udaletxetik.
12:45 Emanaldi nagusia: Mikel Laboa plazan (eurirarekin, Agerialdeko frontoian)
Olarri (Oiarzun)
Iruña Dantza Taldea
Orbeldi (Usurbil)
14:30 Bazkari Herrikoa.
17:30-19:30 Trikitilariak: Kalezarko Plazan.
Elizagoien ahipak.
Estanga anai-arrebak.
Eneko Dorronsoro eta Izer.
Kris Solano, Irma eta Amets.



2 Igandea 17:00 Sutegiko auditoriumean

Haurrentzako zinea: Klara eta hazi magikoen misterioa

Antolatzaileak: Ziortza Gazte Elkarte eta Usurbilgo Udala.
Sarrerak: 3,50 euro. Usurbilkultura.eus webgunearen bidez • **Iraupena:** 70 minutu.
Norentzat: Guztientzat egokia eta haurrentzat bereziki gomendatua.
Eta euririk, eguzkirik edo lurrik gabe ere loratu litekeen hazirik balego? Eta norbaitek lapurtu badu? Klara behi nerabe ausartak misterio bat argitu beharko du Agatha Christensen untxi detektibearekin: hazi miraritsuaren desagerpena ganadua daraman trenaren barruan.



5 Asteazkena 17:30 Potxoenean

Treba gurasoak hitzaldia: Miren Ros: "Gure emozioak kudeatzen, seme-alaben bidelagun izateko"

Antolatzaileak: Hitz Aho Guraso Elkarte, Gaztelekua, Usurbilgo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia.
Norentzat: haur eta nerabeen gurasoentzat.
Izen-ematea: doan. usurbilkultura.eus webgunearen bidez. Plaza-kopurua mugatua da.
Historikoki eta belaunaldi batzuetan emozioak ezkutatu izan dira. Guraso askok ez dute gai honen inguruko eredu osasungarririk jaso, eta berebiziko garrantzia du horri leku bat egiteak.
Landuko diren edukiak eta gaitasunak: Emozioak ulertzen. Zer dira emozioak? Eta sentimenduak? Zer informazio ematen digute? Zertarako balio dute? Ze onura dakartzate?/Emozioak kudeatzeko gakoak. Pausoz pauso./Baliabide praktikakoak adimen emozionala garatzeko eta seme-alaben bidelagun osasungarriak izateko.



Usurbilgo Emakumeon etxea

AZAROAK 6, OSTEguna Tailerra: Hilerokoa pubertaroan

17:00-19:00 Pelaioenean
Formatzailea: Ainitze Sala Insausti.
Tailer honetan, emakumearen gorputzak pubertaroan ematen dituen aldaketek hitz egingo dugu. Lehenengo hilerokoa (menarkia) dugunetik, gure gorputzaren prozesu naturala ezagutzeko erreminta ezberdinak landuko ditugu. Beti ere sendabellarak oinarri hartuta gure ziklo hau ezagutu eta egoera ezberdinei nola aurre

egin ikusiko dugu. Amaieran infusio bat dastatuz eta sendabellarrez eginiko bizkotxo bat janez hausnarketa momentu goxo eta lasaia egingo dugu.

AZAROAK 20, OSTEguna Hitzaldia: "Familia eredu berriak eta legedi zaharra, nola uztartzen da hau?"

17:30 Pelaioenean.
Hizlariak: Irule abokatuak taldea
Ezkontza zaharkituta dago? Modernagoa da ez ezkontzea? Nola antolatu dezaket elkarbizitza? Zein eragin izango du honek etorkizunean? Ezkontza, izateko bikotea edo bestelako tresnak zein aukera eskaintzen dizkigute eta zein desberdintasun daude beren artean? Dibortziazten banaiz zein eskubide ditut?

6 Osteguna 19:00 Aginagako Eliza Zaharrean

Usurbilgo Sagardoen dastaketa

Antolatzaileak: Sagardoaren Unibertsitatea; Alkartasuna Kooperatiba; Usurbil Sagarra-ren Bihotza, Sagardoaren Kultura.
Laguntzaileak: Usurbilgo Udala; Aginagako Eliza Zaharra Elkargunea.
Gonbidatuak: Mikel Garaizabal (Enologoa)
Prezioa: 10€.
Izen-emateak: Alkatasunako telefonoan 943 361114 eta alkartasuna.eus web orrian.

LIBURUTEGIAK 20 URTE!

AZAROAK 19, ASTEZKENA Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa
18:00 Sutegi Udal liburutegian.
Norentzat: 4 eta 5 urteko haurrentzat
Iraupena: 50 minutu.




AZAROAK 7, OSTIRALA Konpasetan: bidaia intimo bat emakumeen historian zehar
19:00 Udal liburutegian
Iraupena: ordu 1
Ikuskizuna Susana Cencillo soinu-jolea eta Garazi Kamio idazlearen eskutik.



AZAROAK 12, ASTEAZKENA Miriam Mendozaren ipuin kontaketa
18:00 Sutegi Udal liburutegian.
Norentzat: 2 eta 3 urteko haurrentzat; haurrek heldu batek lagunduta etorri behar dute.
Iraupena: 45 minutu.



AZAROAK 26, ASTEAZKENA Pello Añorgaren ipuin kontaketa
18:00 Sutegi Udal liburutegian
Norentzat: 6 urteik gorako haurrentzat
Iraupena: ordu bat.



BIZI EUSKARAZKO ZINEA NOAUA!REKIN

AZAROAK 9, IGANDEA "Karmele"
18:00 Sutegiko auditoriumean
Antolatzailea: Noaua! Kultur Elkarte.
Nori zuzendua: helduei.
Sarrerak: aldeaz aurretik salgai 6€tan usurbilkultura.eus webgunean. Bazkideek 4€tan eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noaua!ko egoitzan.



AZAROAK 30, IGANDEA "Gaua"
18:00 Sutegiko auditoriumean
Antolatzailea: Noaua! Kultur Elkarte.
Nori zuzendua: helduei.
Sarrerak: aldeaz aurretik salgai 6€tan usurbilkultura.eus webgunean. Bazkideek 4€tan eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noaua!ko egoitzan.



Kirmen Uriberen "Elkarrekin esnatzeko ordua" eleberrian oinarritua. Espainiako Kritika Saria (euskarazko narratiba) eta 111 Akademia Saria (urteko liburu onena). Karmele Urrestiren benetako istorioan oinarritua. 1937. Karmele eta haren familia Frantziara erbesteratzen dira, gerraren ondorioz etxetik kanporatuak izan ondoren.
Paul Urkijo Alijoren hiru-garren film luzea ikusteko aukera izango dugu. Gauak Yune Nogueiras du protagonista, Ane Gabarain, Elena Irureta eta Iñake Irastorza lagun dituela.
Euskal mendiak, XVII. mendea. Sorgin ehiza betean, senarrarengandik ihesi dabil Kattalin, gauaren erdian baseritik alde eginez. Basoaren beltzasunean galduta, bere atzetik doan presentzia sumatzen du.

7 Ostirala 17:30 eta 19:00 Sutegiko auditoriumean

"GO!AZEN 12.0" telesailaren estreinaldia

Sarrerak: doan usurbilkultura.eus webgunean. Urriaren 31tik aurrera eskuragarri.
Antolatzaileak: Usurbilgo Udala, UEMA eta EITB.
Norentzat: nerabeei zuzenduriko saioa da Saioaren iraupena: 60 minutu inguru.
Go!azen» telesailaren 12. denboraldiak denetarik o sagaiak izango ditu: abenturak, misterioa, gaztaroko maitasuna, komedia, drama... eta noski, kantuak.



12 Asteazkena 18:00 Potxoenean

Iñurri Elkartearen hitzaldi solasaldia: Comprendiendo cómo funciona el sistema de investigación

Antolatzailea: Iñurri Elkarte • **Hizlaria:** Cristina Eguizabal Argaiz (Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroko Terapia Aurreratuaren Unitateko koordinatzailea. ISS BioBizkaia)
Hizkuntza: Gaztelera. **Sarrera:** Doan. **Izen ematea:** izaninurri.eus bidez.
Cristina Eguizabal Argaiz ikertzaileak hitzaldi-solasaldi interesgarri bat eskainiko du ikerketa sistemak nola funtzionatzaren duen azaltzeko. Gizarte osora bideratuta dago, osasun arloan lan egin edo ez, minbizia eduki ala ez.

15 Larunbata 09:00-14:00 Bordatxoko Biribilgunetik

Mutrikuko olatu plantara txangoa, SORTALDEren eskutik

Antolatzailea: Sortalde • **Irteera:** 9:00tan, Bordatxoko Biribilgunetik
Nola: autobusez (doan) Informazioa, www.sortalde.eus webgunean edo instagramen.
Mutrikuko olatu planta, olatuen energia aprobetxatzen duen Europa osoko lehenengo planta komertziala da. Bertan, energia berritzagarri hau zertan datzan azalduko digute.

FRANCO HIL ZENETIK 50 URTE

1936ko kolpe militarrek piztutako gerrak 40 urteko diktadura ekarri zuen, frankismoa deiturikoa. Franco hil zenetik beste 50 urte beteko dira azaroaren 20an.
Antoltzailea: 1936 Usurbil Oroimen Historikoaren elkarte.

AZAROAK 16, IGANDEA Olvido Flores ikuskizuna

18:00 Sutegiko auditoriumean.
Sarrera: Izen ematea: usurbilkultura.eus-en; sarrera egunean bertan ordainduko da 5€.
Hizkuntza: Gaztelera.
Estefania de Paz Asin antzezleak Lodosan 1936ko uztailean jazoatko sarraskia irudikatzen du maisutasun handiz eta era oso berezian. Lan honegatik sariak ere jaso izan ditu.



AZAROAK 20, OSTEguna Hitzaldia: 50 urte Francorik gabe, 50 urte demokrazian?

18:30 Sutegiko auditoriumean.
Hizlaria: Josu Txueka
Franco duela 50 urte desagertu zen. Baina frankismoa berarekin bukatu al zen? "Demokrazia" deiturikoaren ezarpena ez zen automatikoa izan. Borroka asko, zaurituak, hildakoak, sekulako errepresioa izan zen. Hain zuzen, benetako demokrazia ekarri al zuen batzuek "eredugarritzat" jotzen duen "trantsizio" hark?



19 Asteazkena 18:00 Potxoenean

"Adi entzun, gozo idatzi" jardunaldia

Antolatzailea: Noaua! Kultur Elkarte.
Nori zuzendua: haur eta gazteekin harremanetan aritzen diren alkarte eta eragileak.
Sarrera: doan.
Usurbilen gazteekin harreman zuzena daukaten guraso eta hezitzaileei zuzenduta, kirol, aisaldi, kultur eta bestelako taldeetan sortzen diren komunikazio beharren inguruan hausnartu eta praktikak trukatu nahi ditugu. Horretarako, lehenengo aditu baten hitzaldia entzungo dugu eta ondoren Usurbilgo hainbat eragileren esperientziak ezagutuz, mahai-inguria egingo dugu.
Zein irizpide hartu behar dira kontuan idatzizko komunikazioan? Zein da argazkiei eman beharreko tratamendu egokia? Nola eman lehenetsuna euskarari, beste hizkuntzak hitz egiten dituzten pertsonen informazioa erraztuz eta hizkuntzaren inguruan sortzen diren gatazkak ekidinez? Zein tresna edo estrategia erabil ditzakegu? Posible al da sare sozialak modu "osasungarriagoan" erabiltzea?

27 Osteguna 18:00 Kalejira 19:00 Sutegiko auditoriumean

Santa Zeziliren omenezko kalejira eta kontzertua

Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola • **Sarrera:** Doan.
18:00tan Euskal Herriko musika eskola guztiek, bakoitzak bere herrian "Musikalean" kalejira egingo dugu Zumarte Musika Eskolatik hasita triki-pandero, haizezko eta perkusio ikasleekin.
19:00tan Sutegin, talde instrumental desberdinen kontzertua egingo dugu.
Flauta taldetxoa, biolin taldea, kantu eskolako ikasleak, gitarra taldea, talde instrumentala, triki-pandero taldea.

